Araba Álava

Amurrio

TUBOS REUNIDOS




Tubos Reunidos fabrikak garrantzi handia du Amurrio udalerriaren historian. Industriagune handia da oso, Nerbioi ibaiaren eta Bilbo-Tutera trenbidearen ondoan dagoena. Enpresa hau Bilbon egon zen kokatuta XIX. mendearen bukaeran, Tubos Forjados SA izenarekin; Deustun hain zuzen, Elorrietako Buelta izeneko lursailetan. Amurrioko instalazioak 1966koak dira; hots, Tubos del Nervión, SA eratu zen garaikoak. Soldadurarik gabeko altzairuzko hodiak fabrikatzen dituzte bertan, beroan ijetzita eta hotzean luzatuta. Instalazioak lurzoruaren gorabeherei egokituta daude.

Beheko aldean, ekoizpenerako eraikinak eta bulegoak daude; goiko aldean, berriz, hondakindegiak, txatar-parkea, ur-depositukak eta azpiestazio elektrikoa. Aipagarriak dira ekoizpenerako nabeak, hotz-nabea eta hodien biltegia. Horiek guztiak bloke trinko bakar batean daude bilduta. Blokeak zerra-hortzeko estalkia du, eta perimetroko hormek bistako adreiluak dituzte kanpoaldean. Bulegoen eraikina multzoaren aurrealdean dago, ibaiaren ondoan. Eraikin funtzionala da, apaingarririk gabea, eta bao burudunen serieak ematen dio konposizio-erritmoa.

Tubos Reunidos es una fábrica de gran significación dentro de la historia del municipio de Amurrio. Forma un gran complejo industrial, junto al río Nervión y al ferrocarril Bilbao-Tudela. A finales del siglo XIX, esta empresa estuvo instalada en Bilbao con el nombre de Tubos Forjados S.A., en concreto en Deusto, en los terrenos conocidos como Vuelta de Elorrieta. Las instalaciones de Amurrio datan del año 1966, cuando se constituyó Tubos del Nervión, S.A., para la fabricación de tubos de acero sin soldadura laminados en caliente y estirados en frío.

Adaptándose al terreno, en la zona baja se ubican los edificios de producción y las oficinas, mientras que en la zona alta, se encuentran las escombreras, el parque de chatarra, los depósitos de aguas y la subestación eléctrica. Entre sus naves destacan las naves de producción, la nave de frío y el almacén de tubería, todas ellas unidas formando un único bloque compacto que se cubre con cubierta de diente de sierra y se cierra perimetralmente con ladrillo cara vista al exterior. Las oficinas situadas en la zona frontal del complejo, junto al río, son un edificio funcional sin concesiones decorativas donde el ritmo compositivo se observa en la seriación de los vanos adintelados.